

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**GAINTZAKO UDALA**

*2025 urteko Egutegi Fiskala*

Gaintzako Udalaren udalbatzak, 2024ko azaroaren 5ean izandako bileran, besteak beste, 2025eko egutegi fiskala onartu zuen.

1. Aldizkako epemuga duten eta taldeka jakinaraziko diren tributuak ordaintzeko borondatezko epeak honako izango dira:

– Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga: 2025/02/01etik 2025/02/28ra.

– Zaborbilketa zerbitzuaren tasak, lehen seihilekoak: 2025/05/01etik 2025/05/30era.

– Zaborbilketa zerbitzuaren tasak, bigarren seihilekoak: 2025/11/01etik 2025/11/28ra.

– Landalur izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga: 2025/05/15etik 2025/06/30era.

– Hirilur izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga: 2025/05/15etik 2025/06/30era.

2. Aurreko egutegi fiskalean zehazturiko ordainketa egiteko epeak, ezarritako egunean bukatuko dira edo hori jaieguna bada, hurrengo egunean.

3. Egutegi fiskala Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udalaren web-orrian eta iragarkien oholean argitaratuko da, Gipuzkoa ko Lurralde Historikoaren Diru-bilketa Araudia onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 18. artikulua aipatzen duen kobrantzetarako iragarki betekizuna betetzeko.

4. Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunen Arautzaileak, 14. artikuluko 1. zenbakian agindutakoa betez, errolda fiskalak, non ordaindu beharreko kuotak eta hauek finkatzen dituzten zergako elementuak ezartzen baitira, jendarean jarriko dira udaletxeko bulegoetan dagozkien kobrantza epeak hasi baino hamabost egun lehenagotik. Aipatu errolden betekizunaren aurka berraztertze errekurtsua jarri ahal da administrazioarekiko auzi-bidera jo aurretik, erakustaldi publikoko epean eta epe horren azken egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean.

5. Kobrantza ondorengo zehaztapenaren arabera egingo da:

a) Dirua sartzeko epeak: Egutegi fiskal honetan agertzen direnak.

b) Lekuak eta ordaintzeko era:

Helbideratutako errezihoak, baimendutako finantza erakundeetan eta zergapekoak agindutako kontu korrontetik kobratuko dira.

Helbideratu gabeko errezihoak, ostera, zergapekoak adierazitako zerga-helbideetara bidaliko dira, eta ondoko moduetako batean egingo da ordainketa:

– Udaletxeko arreta bulegoan, kreditu- nahiz zordunketa-txartela, legezko dirua edo Gaintzako Udalaren aldeko txeke izenduna erabiliko da.

**AYUNTAMIENTO DE GAINZTA**

*Calendario Fiscal del año 2025*

El Ayuntamiento Pleno Municipal en sesión celebrada el día 5 de noviembre de 2024 acordó, entre otros, aprobar el calendario fiscal para el año 2025.

1. Los periodos de pago voluntarios de los tributos de vencimiento periódico y notificación colectiva son los siguientes:

– Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica: Del 01/02/2025 al 28/02/2025.

– Tasas del servicio de recogida de basura del primer semestre: Del 01/05/2025 al 30/05/2025.

– Tasas del servicio de recogida de Basura del segundo semestre: Del 01/11/2025 al 28/11/2025.

– Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza Rústica: Del 15/05/2025 al 30/06/2025.

– Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza urbana: Del 15/05/2025 al 30/06/2025.

2. Los periodos de pago dispuestos en el calendario fiscal finalizarán el día señalado en el mismo, o siendo este inhábil, el inmediato hábil posterior.

3. Este calendario fiscal se publica en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en la página web y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a los efectos de cumplir la función de anuncio de cobranza previsto en el artículo 18 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

4. En cumplimiento de lo dispuesto en el art. 14.1 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, los padrones fiscales, conteniendo las cuotas a pagar y los elementos tributarios de terminantes de las mismas, se expondrán al público en las oficinas municipales en el plazo de quince días antes de iniciarse los respectivos periodos de cobro. Contra el contenido de dichos padrones podrá interponerse recurso de reposición previo al contencioso-administrativo, durante el periodo de exposición pública de los mismos y en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente hábil al de la finalización de dicho periodo de exposición pública.

5. El cobro se efectuará de acuerdo a las siguientes estimaciones:

a) Plazos de ingreso: Los establecidos en el presente calendario fiscal.

b) Lugares y modo de pago:

Los recibos domiciliados se cobrarán en las entidades financieras autorizadas y en la cuenta corriente ordenada por el obligado tributario.

Los recibos no domiciliados se enviarán al domicilio fiscal indicado por la/el contribuyente. El pago se efectuará de uno de los siguientes modos:

– En la oficina de atención del Ayuntamiento. El pago se realizará mediante tarjeta de débito o crédito, dinero de curso legal o cheque nominativo expedido a favor del Ayuntamiento de Gaintza.

— Kutxabankeko edozein bulegotan, kutxazainetan eta ban-  
ku elektronikoan.

— Euskal Administrazioaren Ordainketa pasabidea dela me-  
dio, beti ere Gaintzako Udalari atxikitako finantza erakunde lagun-  
tzaileren zerbitzu telematikoak erabilita: konturako kargua eginez,  
kreditu- edo zordunketa-txartela erabilita edota bizum bidez. Sar-  
bidea: Gaintzako Udalaren egoitza elektronikoan dago: [www.gaintza.eus](http://www.gaintza.eus), «Nire ordainketa on line» atalean.

Ordain-agiria eskura eduki ezean, udaletxeko bulegoetan es-  
katuko da.

c) Borondatezko diru-sarrera egiteko epea amaitutakoan  
premiamenduzko prozedurari ekingo zaio ordaindu gabeko erre-  
ziboekin, eta errekaruak, berandutza interesak, eta hala bale-  
gokio, kostuak gehituko zaizkio hasierako zenbatekoari.

Gaintza, 2024ko azaroaren 5a.—Jon Gorrotxategi Gorrotxate-  
gi, alkatea. (8365)

— Así mismo, los pagos se podrán efectuar en cualquier ofi-  
cina, cajero automático o en la banca electrónica de Kutxabank.

— En la pasarela de pagos de la Administración Vasca, más  
concretamente, utilizando los servicios telemáticos de las enti-  
dades financieras colaboradoras adscritas al Ayuntamiento de  
Gaintza, mediante cargo en cuenta, tarjeta de crédito o débito o  
bizum. El acceso se encuentra disponible en la sede electrónica  
del Ayuntamiento de Gaintza, en el apartado «Mi pago on-line»:  
[www.gaintza.eus](http://www.gaintza.eus).

En caso de no tener el recibo a mano, se solicitará en las ofi-  
cinas del Ayuntamiento.

c) Una vez finalizado el plazo de pago voluntario, se inicia-  
rá el procedimiento de apremio de los recibos pendientes de  
pago, devengándose los recargos e intereses de demora corres-  
pondientes, y en su caso, las costas que se produzcan.

Gaintza, a 5 de noviembre de 2024.—El alcalde, Jon Gorrotxa-  
tegi Gorrotxategi. (8365)